

## 5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK / CANALES DE DISTRIBUCIÓN Y COMUNICACIONES



Hasteko, gure app-a Espainian bakarrik egongo da eskuragarri, eta nola funtzionatzen duen kontuan hartuta, zabaldu egingo da edo ez. Bezeroa gehiago lotzeko eskaintzak erabiliko ditugula erabaki dugu, eta, aldi berean, publizitatea egingo dugu, eta daukagun bulegoan informazio gehiago duten liburuxkak egingo dira.


Gure aplikazioa ezagutarazteko gaur egun jendeak gehien erabiltzen duena erabiliko dugu, sare soziala. Horretarako, instagram, facebook eta antzeko kontuak sortuko ditugu.



Bestalde, **Bilbon** dagoen denda fisiko bat izango dugunez, eta bertan informatikariak egongo direnez app-aren edozein akats konpondu ahal izateko, dendan bezeroaren arretarako zenbakia eta oraindik aparkatzeko baimenik ez duten pertsonentzako aplikazioari buruzko informazioa duten liburuxkak egingo

dira.

Amaitzeko, gure aplikazioaren berri emateaz gain, aplikazioaren mekanikari buruz gure ohiko bezeroek zer iritzi duten jakiten saiatuko gara, aplikazioa hobetu eta denon gustukoa izan dadin.



Bi modutara azalduko diogu jendeari gure aplikazioa:

1) Mugikorren aplikazioetan egongo dira eskuragarri, hau da, App store-n eta Play Store-n.



2) Web-orri bat izango dugu. Bertan, bezeroek aplikazioa bertatik deskargatu ahal izango dute, eta, aldi berean, aplikazioari buruzko era guztietako informazioa aurkitu ahal izango dute, bai eta ebatziko ditugun galderak egin ere.

[www.aparcauto//consiguegaraje.es](http://www.aparcauto//consiguegaraje.es)



- Garrantzitsua da baita salmenta ondorengo zerbitzua (post venta) ondo bete den jakitea, hau da, bezeroaren iritzia ezagutzea. Nola egingo dugu hau? Internetez? Telefonoz? Gu bertaratuko gara urte beteren buruan? Horrela agian beste produktu bat saltzeko aukera izango dugu urtebetera?

Bezeroaren gogobetetzea ikusteko, honako hauek egingo ditugu:

- Bezeroari arreta emateko zenbaki bat izango dugu eguneko 24 orduetan, bezeroak, arazoren bat izanez gero, ahalik eta lasterren jar daitezen gurekin harremanetan.

“ Bezeroentzako arreta 645 78 93 24”



- Aplikazioa deskargatuta izan eta 1 edo 2 hilabetean behin ohalmetea erabiltzen duen guztiari jakinarazpen bat agertuko zaio galdetegi batekin, astialdi pixka bat dutenean egin ahal izan dezaten, guk aplikazioa hobetu ahal izateko.